100/107

1V

## Marte baten senharha aise eta ontsa nahia..

1° Ivanes ene senhar gaizuak
segituz oraiko modak
Alfer nahi luke bizi,
Plazerez plazer ibili.
2° Moyenak ditu meheskuak
Yuanes ene senhar gaizuak.

2° Lanak uztentu geroko
Edo berzek egiteko,
3° Lo derama gaba dena,
Causu handian egina;
Gorphutzaren beiratzeko
Lanak uztentu geroko.

3° Badoha maiz merkatura
Alegieta tratura,
Etcherat heldu da hutxik
Bere sosak han utzirik;
Kafe, likur edatera
Badoha maiz merkatura.

4° Lagunak beharzen zaizko
Bivirik Etchian sartzeko:
Erorzen da pataretan,
Erregelatzen bidetan,
Uretarik ialitzeko
Lagunak beharzen zaizko.

5° Yaanesen tripa handia
Deusek ez dio sasia,
Iatetik ez da gelditzen
Ez bada mahaitik khentzen;
Da leize bat iduria
Yaanesen tripa handia.

6° Zenbeit aldiz gaizo Yaanes
Barurdago ezin ~~[illegible]~~ berzez,
Ez du iastatzen banketik
Ez izanez komiturik;
Ase da berzek emanez
Zenbeit aldiz gaizo Yaanes.

7° Ez dute nehoiz ikhusten
Berak ordainik bihurtzen;
Eskalen moda hartu du,
Ukhan ahalak biltzentu;
Beretarik partemaiten
Ez dute nehoiz ikhusten.

8° Lokoko, balitz diruya,
Balukke gostu handia,
Bainan sakela hutxetik
Ez dio yali tresorik.
Balitake kompainia
Lokoko balitz diruya.

9° Kausitzen denian parada
Eskrupularik gabe da
Beretzeko berzerena;
hortaz ez ojiten estona,
Lumanten legia hola da
Kausitzen denian parada.

Béhobie

101 DUVOISIN

Yaun yujeari

horra, yauna, ene bersuak
Lehenik aizkoraz lanthuak
Ondotik legunduak limez
Estaliak bernuza finez

halere daudeze ikharan
Zure begien aitzinean,
Zeren diren oro deithuak,
Bainan guttiak hautatuak

1862 M. b. Salataria

Abisuya. irakur bersu hok prononzatuz Ahasparneko Kantoynian bezala

102 (a)

## Kantu Lehena. Kazdunen izendazina.

Egun batez Merak deithurikan
Adizak, Piarres, erran zautan:
izendatu behartuk herritik
hamar Konseilari onetarik.
— Onetarik hamar, ~~hor~~ ortoki huntan!
Gauza hain arrado den demboran!
~~Bat~~ Ez da bat menturaz miletarik
Kargu hortakotzat onsko denik.
— hautuya hik utzak en'eskura,
Botazak billetto hau Kofrera;
hamarren izenak hemen dituk:
herrian hoberik bater'ez duk.
hiriek ditiguk ichilenak
Lau eta gizonik humilenak.
Yakin gabe zer den arrazoina
Egin en ditenak nik errana.

Gaiten gira beraz Meriara
Laiterka beldurrek gal tenora,
Manatu billeten emaiteko
Zer pasaturen den ikhusteko.
Kofre gakhatu bat bada salan
Meriako yaunen gomendiuan;
han dira izenez markatuyak
Kargudunetzat behar ditigunak.
Oro beha gaude chutiturik
Begiak ahalaz zabaldurik :
Zer behar othe den handik yali
Atheratzen dira hamar Uli
Mera dantzan hasten da plazerez
Gu gaude betherik Konfusionez
fidaturik gure malhurretan
Meraren Konseilu tronporetan.

(a) Kantatzera noha bersu hotan
Nolako suyetak Konseiluyan
Dituguin herrian ezarriak
haukien promesak eta obrak.

Egun guinukeyen hautu hobia
Seguitzuz gu hauren Konzinzia
Amentch, nola yattha bertaldian
ikhasiche dugu Kasu huntan

## Kantu 2.ma Karguidun berrien lehen banketa.

Karguidun berriek lehen lana
Banket bat ein dute, yan bat ona,
Pensaturik, moda den bezala,
hortik behar dela hasi saila.

Platak dituztenian deskargatu,
hamasei botoila denak hustu,
Basuak yo fierki trinkatzeko,
Membro bat mintzo da berzendako

hazer! abantaila herrikotzat
yaun Mera, baitzitu gidaritzat.
Zure gobernuyak behar ditu
Afera makhurrak arranyatu.

Boii, hala da, dio gure Merak.
ikhusiz hemengo planta zarrak
Kargu hau hartu dut karitatez
Ez anbizionez, ez banitatez.

Oï! zembat desordre lekhu huntan
Pairatu izan den orai artian.
Gogora lakiet berehala
Egun batez hemen kondahala.

herriak faltaitu yendebidiak
Penatuz dabilza habitantak,
Ahuntzka iganez patarretan,
Bethaunak trempatuz ibarretan.

Eliza, Meria yohan dira
Usteldurik biak erortzera,
herriko arbolak, lur komunak
Meren adiskidek eramanak!

Zembat diru gaizki gastatuyak!
Zembat khondu makhur ezarriak!
Eta pleinta bat choil eiten bazen
Bazakiten Merek mendekatzen.

hemendik aitzina berze molder
yuanen dira gauzak ene ordrez.
Kontent ezarriko ditut oro
Meriako charpa nik dudano.

herrian gu gira kapablerik
tiratzeko bide chuchenetik
Aferen thimoya; errekara
Utz liote berzek erortzera.

Desiratu behar dugu beraz
Kargu huntan bizi giten luzaz.
Orai dugun edan brok chuncha
horra ni Meraren ordenantcha.

Berriz trinkaturik inguruan,
Diote guziek errepikan
Biba! Mera, Biba! ehun urthez
Eta konseiluya berrehunez.

103

1° Andere bat bada modacua,
Educacionerica gabecua,
conduitaz çarrena,
arras çalamandrana.

2° Plaçan iduri du princesa,
Bidian denean bibandiersa,
Etcheretan turchuna,
Oh! cer çalamandrana.

3° Mocanesa modan çcarria,
Burian tropaca gorria;
Aire bat harlequina,
Oh! cer çalamandrana.

4° Urhe yetentac beharritic,
Mukhu yaqueta sudurretic,
hortcetaric urrina,
Oh! cer çalamandrana

5° Lephuan cherra doble yullita,
Soin maillegatu bat charmanta,
Athorra çar cithina,
Oh! cer çalamandrana.

6° Ez da ithhuci bortz urthe huntan;
Calagarra badu bestetan,
Escuyetan mitena.
Oh! cer çalamandrana.

7° Galcerditeat calamu oihala,
Lokharritçat sahats achala
cetazco brodequina,
Oh! cer çalamandrana.

8° Miraila ibilcen du sakelan,
Urhen eta cilharren plaçan,
Urguluzco onthasuna,
Oh! cer çalamandrana.

9° Mintçatu nahi da franseser
Aphaintcen den aldi guciez
Eta ez daqui cascoina
Oh! cer çalamandrana.

10° Portalcen ditu, dio, funtenatic
Crucha bat ayguc ur frescotic,
Damuric da Escualduna,
Oh! cer çalamandrana.

11° Ecin ikhassi du liburutan,
Perfetqui badaqui cartetan;
floreco da hautena,
Oh! cer çalamandrana.

12° Ez da arcen yosten ez iruten,
Bethi presa du beri biltcen
hartan du bere lana
Oh! cer çalamandrana.

13° Medisencia, calomniez,
Cohuetaco gucexur phurruzquez
Bethia du magasina,
Oh! cer çalamandrana
14° Bereguin dabilça yoiac
Cazpi bekhatu capitalac,
Compainia bat ona.
Oh! cer çalamandrana
15° Lanetic ihes Eliçara,
handic yal eta mocoçara;
Gormanta da lebena
Oh! cer calamandrana.
16° hartio du gucic pitarra;
hanitz hobe çaco licurra;
Maiz ahuan du bonbona,
Oh! cer calamandrana.
17° Bego descansuz irestera,
Yuan ez dadin cincur contrara
Bici bedi presuna,
Nahiz çalamandrana.
18° Exorta deçagun ardura
Molde hobe baten harcera,
hemendic aitcina,
Gure çalamandrana.

104

## Petche deputatu izan nahia.

1º Petche batek nahi du
Pariserat partitu
Plazer badugu yan hori
Deputatu igorri,
Gure bozen galdez dago
Kargu horren hartzeko.

2º Petche horrek nahi du
Leguiak oro berritu;
Azpikuaz gora handiki
Gauzak oro itzuli,
Guriak kontent eiteko,
Urus errendatzeko.

3º Jeiki dena nagusi
Ikhusten omen guazi,
Bordaxiak ere burges
Petche launaren leguez,
Aberatsen ontasunak
Probendako guziak.

4º Kafe likurrak merke
Izan omen ditazke,
Kasik urrik tabakua
Pipatzal gustukua,
Impusetik arrun libro,
Zorrak ere bai kito.

5° Dela guizon leyala,
Sabant guziz abila,
Heskualdunen igaskia,
Frantziaren arguia
Ozotan da publikatu:
Petchek berak erran du.

6° Espantu hanitz bada,
Bainan ezguiten fida,
Zeren ordaiko demboran
Chalatakan botigan
Baïta kausitzen ardura
Marchandiza tromporra.

7° Leguen kambiatzeko,
Usayen sanyatzeko
Behar da hanitz botere,
Adrezu hanitz ere;
Lan hortako behar denik
Ez du Petchek ahalik

1860 M.H. Menditarra

Une poésie qui a honoré le concours nous vient de M. H. Menditarra. Letche candidat à la représentation naxionale nous rappele ces grands politiques que 1848 produisit devant le monde étonné. Letche sert de type à notre Menditarra pour mouler leur figure. On ne peut nier que le portrait ne soit ressemblant. Nous devons ajouter que M. H. loin de déployer de la pédenterie, répend dans ses vers une bonhomie agréablement fourrée de malice.

Capitaine Duvoisin.

E. la C. de P. B. 106

# Adiskide min baten orhoitzapenak.

1° Adiskiderik maitena,
Ez zaitut ez ahanzten,
Ezagunik hoberena,
Maiz zutaz naiz orhoitzen.

2° Dudan erregret samina
Ez du deusek eztitzen,
Ez du nere bihotz mina
Demborak eramaten.

3° Egun oroz goizgoizetik
heldu zaizkit gogora,
Arraxak ez daut gogotik
Khentzen zure figura

4° Orhoituren naiz sekulan
Phartidako egunaz,
Bai, nere bizi guzian,
Dolutko egun hartaz.

5° Nola ni besarkaturik
Zinazkidan mintzatu,
Nola begiak busturik
Guinen biak urrundu.

6° Geroztik hatxegrapenka
Ardura nagolarik
Nigarra doha pumpilka
Ene begietarik.

7° Zurekin toki orotan
Ni alegera ninzan,
Ni triste naiz guzietan
Zeren zu falta zaren.

9° Ibili naiz ald'orotan
Zure berrien galdez,
Bainan helas! alferretan,
Deus ez dut yakin funxez

10° Ah! hegastinen ahala
Nere oinek balute,
Zure ganat berehala
hegaldaka nindaite.

11° Bai, bainan ez dut indarra
Desiren segitzeko;
Apartatu zare Sobra
Ni zutarat heltzeko.

12° Balin baduzu ahala
Zuk konsola nezazu,
Bederen bizi zarela
Gaztia dezadazu.

13° Ene penak arte hantan
Ez dire yabalduko,
Nere grinek hanitzetan
Naute tormentatuko.

1863 Lab. ħ.

8º Aski zinen zu bakarrik
Ene comainuatzat
Ez nuen nahi berzerik
Nere adiskidetzat.

107

Bersuac Erregueren ohoretan eta Boneparten contra

1°.. Luis arribatu da, hau da cori ona!
Luis desiratua, Fransessen çucena;
ongui-thorri çarela, Erregue sothila,
agrada çaçu gure homaya humila:
alabaïda guertzat placer bat bicia
ikhustea Francian cure presencia
2°.. Cure suyet çaharren bihotz chagrinduac,
mila dolorez eta penez cargatuac,
aspaldico denboran ez ziren bicatcen
cure mayestatear gocatcea baizen.
cure gobernamendu onac behar gaitu
gure penen erdian oro consolatu
3°.. Luis egun iarri da aitaren tronuan,
sorcez berea duen palacio hartan.
gure erresumaco premu handi denac
orai ditu dastatcen ohore çucenac,
inguratua bethi gorthe brillant batez,
cardinalez, doctorez, princez eta duquez.
4°. handic ditu Luinec bere cuhurtcian,
aitabatec becala bere familian
equitelo handiac accomodatuco
gure çauri guciac ere sendatuco
senti araztendituü iadanic Luishac
bere ontassunaren effetu eztiac.
5°. Oi! hau da berri ona baquia declaratu,
ceina cazpi erreguec baïdute sinatu!
caude bethi gurequin beque dohaxua,
eta hil bedi sperta satanen piztua.
uken bedi, uken bethicotz banderagorria
eta duguun har hiszbait cocarda churia.

5° Burhasso tristatuac consola çaitezte
Cuen haurrac guerlatic hor heldu dirade
orai biei cinetez nigarrez urthuac
hequien esperançac hurran gabetuac
baina cuen changrinac sinceraduaci
orhoit hondic heldu den ongui handi hori

7° Eta cuec haur gazte hain maitagarriac
ez çarete icanen orai borchatuac,
mundur munduinaitera herinaren bitha
phartitcean tristequi ineasatela
adio, o ene aita, adio, nere ama,
Boneparte tethicotz egun baneama.

8°.. Lehen erran arasten cituen Solas hec
Corsaco Boneparte, burreo beltz harrec
nola haice borthitcac landatic liliac
hala nahi cituen eraman guciac,
eta cauntcen cuen ministroric frango
bere manu crudeleen compliaraztecco.

9°.. gu trompatu nahia trompatu haicena
gogoan diat hire hitcic falsuena
guerla nic eguiten diat, ahal huen erran,
Seculaco baque bat nahiz cueri eman
ah! nic phensatcen diat noiz huen emanen
oro hiltcenean mundutic casatcen.

10° Oro hatceman nahiz orotz gabetua
Seint heleneco irlan hor hadu cerratua
baiman eguin decayuec bai hor ere guerla
Saguzco armada bat hor hainitz abila
prest çayoc aspaldion exai bat nahia
baraue, hero handia, galdu bictoria.

11° Baiman ahanti deçaguin Bonaparte hura
Seculan ien ez bedi fransesen gogora
ezen orhoitcen banaiz ~~bonaparte~~ icuzate hartar
oguen ere harten çaut bihotça marrascar
phensa deçaguin orai erregue onari
eta emanen daucun urustassunari.

12° Luisec ez du nahi gure ona baicen
bere indar gucier hura du bilatcen,
ala merexi baidu hainitz éçagutça
erregetu handia, orobat laguinça
bai prest icanen gare, Burbon bat bedera
behar den orducetan çure cerbitçura.

13° orhoit guiten mair maiça gure erreguear
erran deçaguin bethi cantu errepicar:
biba Luis erregue gure patroin ona
Jaunac eman deiola biciric Lucena
chorier primaderan oihanac beçala
alleguera deçaguin francia çabala.

14° Bere thronu guratic Jaun goico handiac
encunic noiz bait bere fideleen pleinuac
khendu du tiranoa hemendic alderat
naguosia justua du guidatu gutarat
deçaguin beraz lauda gure bihotcetan
bihur esquer humilac batter gucietan.
atchabo.

Berduac erreguesen
ohoretan eta Bonepar-
-ten contra.